




ISEI - IVEI

C6. PRESTAKUNTZA IRAUNKORREKO PARTAIDETZA





ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Edizioa: Ekaina 2007

© ISEI•IVEI-k argitaratua

ISEI•IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3º - 48015 Bilbao
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

KOORDINATZAILEA

Paz Martínez
Inmaculada Tambo

ASESORAMIENTO TÉCNICO

Alejandro Campo

DISEINUA

Ikur, S.A.



INKESTAREN AURREKO LAU ASTEETAN PRESTAKUNTZA EDO HEZKUNTZA JARDUERETAN PARTE HARTU DUEN 25-64 URTE BITARTEKO POPULAZIOAREN EHUNEKOA.

Europar Batasunaren helburua 2010. urterako: Europar Batasunean prestakuntza iraunkorreko batez besteko partaidetza maila gutxienez lanerako adinean (25-64 urte) dagoen populazioaren %12,5 izatea.

Ezagutzaren gizartera igarotzeak eskatzen duen eraldakuntza gerta dadin, behar-beharrezkoa da prestakuntzaren kontzeptua bizitzaren aldi jakin bati soilik, gaztaroari hain zuzen ere, ez lotzea. Prestakuntza iraunkorraren ideia ezagutzaren eta informazioaren gizartearen proposamenik erakargarrienetako bat da.

Batzordeak honela definitu zuen prestakuntza iraunkorra: "bizitzan zehar norberaren, hiritarren, gizartearen edo enpleguaren ikuspuntutik ezagupenak, gaitasunak eta jarrerak hobetzeko asmoz burutzen den edozein prestakuntza-jarduera" (Batzordearen adierazpena: "Prestakuntza iraunkorrerako europar gune bat errealitate bihurtu", 2001).

Definizio honen arabera, Europa berriko hiritarrek beren ezagupenak, gaitasunak eta jarrerak bizitza osoan zehar eguneratzeko eta osatzeko erronkari aurre egin behar diote, norberaren garapen maila altuagoa lortzeko asmoz eta lan merkatuan ahalik prestakuntzarik onenarekin mantentzeko asmoz.

Prestakuntza eredu hau, Batzordeak berak adierazi duenez, europar gizarte-eredutik ezin berezizkoa da eta, honen ondorioz, 2010. urterako helburu handizale samarra finkatu da: 25-64 urte bitarteko populazioaren %12,5ek gutxienez prestakuntza iraunkorreko jardueretan parte har dezaten lortzea, tasa hau Europar Batasuneko inongo herrialdetan %10 baino txikiagoa ez delarik.

Batzordeak finkatu zuenetik, zenbait aldaketa izan ditu adierazle honek. Lehena definizioari berari dagokio: 2003. urtetik aurrera prestakuntza bezala inkesta egin aurreko lau asteetan burututako edozein ikastaro, ikastaldi edo tailer hartzen da, eta ez prestakuntza arautua edo erakundeek antolatutakoa bakarrik. Bigarren aldaketa datua lortu deneko momentuari dagokio. 2006. urtera arte 2. hiruhilabeteko datua edo udaberriko datua hartzen zen kontuan. 2007. urtetik aurrera datuak urteko lau hiruhilabeteetako batez bestekoa adierazten du eta 2000. urtetik aurrerako datu guztiak irizpide berri honen arabera birkalkulatu dira. Honegatik, 2005ean aurkeztutako datuen eta oraingo datuen artean badira ezberdintasun txiki batzuk, Europar Batasuneko herrialde gehienei eta Autonomia Erkidego gehienei dagozkienak.

2006. urtean Europar Batasunak jatorrizko 15 herrialdeetarako %11,1eko batez bestekoa zuen eta 27 herrialdeetarako %9,6koa. Egoerak, beraz, ahalegin bat egitea eskatzen zuen finkatutako helburua betetzeko. Herrialdeen artean ezberdintasun handiak daude. Hala eta guztiz ere, 2000-2006 aldiko bilakaeraren datuak kontuan hartzen baditugu, bilakaera hau kasu guztietan gutxienez berdina edo positiboa izan dela ikusten dugu.



Euskadiri dagokionez, 1992-2006 aldiko bilakaerak prestakuntza iraunkorraren tasan etengabeko aurrerape-na izan dela adierazten du, 1992ko %3,5etik 2006ko %12,4ra igaro delarik. Honek 2010erako aurreikusitako helburua, kontzeptu berria erabiliz gero, ia-ia lortu dela esan nahi du.

Autonomia Erkidegoetan 2000. eta 2006. urteen artean izandako bilakaera oso handia izan da, baina, azken bi urteak aztertzen baditugu, bilakaera hau orokorrean negatibo samarra izan dela (-0,10) ikusten dugu. Joera bera ikusten da Euskadiren kasuan (-0,30) eta Europar batasuneko 27 herrialdeetako batez bestekoan (-0,10).

Alemania eta Greziaren kasuetan izan ezik, bai Euskadin, bai Autonomia Erkidegoetan eta baita Europar Batasuneko herrialdeetan ere, emakumezkoek gizonetzkoek baino hein handiago batean hartzen dute parte prestakuntza iraunkorreko jardueretan. Edozein modutan ere, partaidetzaren ehunekoaren arteko ezberdintasunak, sexuaren aldagaiari dagokionez, ez dira oso handiak, Erresuma Batua, Danimarka eta Finlandia bezalako kasuetan izan ezik, hauek prestakuntza iraunkorraren ehuneko altuenak dituzten herrialdeak baitira.




C6.1 taula eta grafikoa:

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko populazioaren ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. EAEko datuak.

Urtea*	Sexu biak	Emakumeak	Gizonak	Aldea
1992	3,5	3,6	3,4	0,2
1993	4,0	4,4	3,5	0,9
1994	5,0	5,8	4,1	1,7
1995	5,1	5,7	4,4	1,3
1996	5,0	5,7	4,3	1,4
1997	4,4	4,5	4,2	0,3
1998	4,9	5,8	4,0	1,8
1999	7,2	7,7	6,6	1,1
2000	4,5	4,9	4,1	0,8
2001	4,9	5,7	4,1	1,6
2002	6,1	7,1	5,1	2,0
2003	6,2	7,1	5,3	1,9
2004	6,5	7,9	5,2	2,6
2005	12,7	14,6	10,7	3,9
2006	12,4	13,7	11,2	2,5

* 1992-1999 urteei dagozkien datuak 2. hiruhilabetekoak dira. 2000. urtetik aurrera, datuak birkalkulatu egin dira eta urteko hiruhilabeteetako batez bestekoak dira.



Iturria: EUROSTAT



C6.2 taula:

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko populazioaren ehunekoaren bilakaera Autonomia Erkidegoetan.

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
GUZTIRA	4,1	4,4	4,4	4,7	4,7	10,5	10,4
Andaluzia	4,3	4,5	4,2	4,4	4,4	9,5	9,6
Aragoi	3,6	3,4	3,5	4,1	4,0	11,3	11,8
Asturias (Printzerria)	3,2	3,4	3,4	4,5	3,7	8,9	8,1
Balearr Uharteak	3,3	3,5	4,1	4,5	5,4	9,5	10,6
Kanariak	5,1	6,2	6,4	6,4	6,5	11,6	10,6
Kantabria	2,8	2,1	2,3	2,4	2,6	9,7	8,6
Gaztela-Leon	5,6	5,4	6,0	6,2	6,4	11,7	11,0
Gaztela-Mantxa	4,5	4,5	4,7	5,0	4,7	8,6	8,8
Katalunia	2,7	3,2	2,8	3,2	2,9	10,0	9,6
Valentziako Erkidegoa	6,3	6,8	6,3	6,6	6,6	10,5	10,5
Euskadi	4,5	4,9	6,1	6,2	6,5	12,7	12,4
Extremadura	2,6	3,2	3,0	3,7	3,3	9,5	9,0
Galizia	3,5	4,4	4,9	5,1	6,0	10,5	11,3
Madrilgo Erkidegoa	3,2	3,6	3,5	4,0	3,6	12,2	11,6
Murtzia	4,4	5,0	4,8	5,5	5,6	8,7	9,3
Nafarroako Foru Erkidegoa	5,8	6,5	6,4	6,1	3,9	12,1	12,0
Errioxa	:	:	:	:	:	10,4	9,0

Oharra: (:) Ez dago eskuragarri

Iturria: EUROSTAT



C6


Prestakuntza iraunkorreko partaidetza

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



C6.2 grafikoa:

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko populazioaren ehunekoa Autonomia Erkidegoetan.



Oharra: Handienetik txikienera ordenaturik, erreferentziatuz 2006. urtea hartuz.


Iturria: EUROSTAT



C6.3 taula eta grafikoa:

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko populazioaren ehunekoa Autonomia Erkidegoetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2006. urtea.

	Sexu biak	Emakumeak	Gizonak	Aldea
GUZTIRA	10,4	11,5	9,3	2,2
Andaluzia	9,6	10,4	8,9	1,6
Aragoi	11,8	13,7	9,9	3,7
Asturias (Printzerria)	8,1	9,1	7,1	2,0
Balear Uharteak	10,6	12,5	8,8	3,8
Kanariak	10,6	11,6	9,6	2,0
Kantabria	8,6	10,1	7,1	3,0
Gaztela-Leon	11,0	13,2	8,9	4,2
Gaztela-Mantxa	8,8	10,2	7,6	2,6
Katalunia	9,6	10,5	8,7	1,7
Valentziako Erkidegoa	10,5	11,2	9,8	1,4
Euskadi	12,4	13,7	11,2	2,5
Extremadura	9,0	10,5	7,6	2,9
Galizia	11,3	12,2	10,3	1,9
Madrilgo Erkidegoa	11,6	12,8	10,4	2,5
Murtzia	9,3	10,1	8,6	1,6
Nafarroako Foru Erkidegoa	12,0	12,9	11,2	1,6
Errioxa	9,0	11,5	6,7	4,8



Oharra: Handienetik txikienera ordenaturik, "Sexu biak" irizpidearen arabera.

Iturria: EUROSTAT

**C6.4 taula:****Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko populazioaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko herrialdeetan.**

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
EB (27 herrialde)	7,1 (e)	7,1 (e)	7,2	8,5 (b)	9,3	9,7	9,6
EB (25 herrialde)	7,5 (e)	7,5 (e)	7,6	9,0 (b)	9,9	10,2	10,1
EB (15 herrialde)	8,0 (e)	8,0 (e)	8,1	9,8 (b)	10,7	11,2	11,1
Alemania	5,2	5,2	5,8	6,0 (i)	7,4 (i)	7,7	7,5
Austria	8,3	8,2	7,5	8,6 (b)	11,6 (i)	12,9	13,1
Belgika	6,2 (i)	6,4	6,0	7,0	8,6 (b)	8,3	7,5 (p)
Bulgaria	:	1,4	1,2	1,3	1,3	1,3	1,3
Zipre	3,1	3,4	3,7	7,9 (b)	9,3	5,9 (b)	7,1
Danimarka	19,4 (b)	18,4	18,0	24,2 (b)	25,6	27,4	29,2
Eslovakia	:	:	8,5	3,7 (b)	4,3	4,6	4,3
Eslovenia	:	7,3	8,4	13,3 (b)	16,2	15,3	15,0
Espainia	4,1 (b)	4,4	4,4	4,7	4,7	10,5 (b)	10,4
Estonia	6,5 (b)	5,4	5,4	6,7	6,4	5,9	6,5
Euskadi	4,5	4,9	6,1	6,2	6,5	12,7	12,4
Finlandia	17,5 (b)	17,2	17,3	22,4 (b)	22,8	22,5	23,1
Frantzia	2,8	2,7	2,7	7,0 (b)	7,0	7,0	7,5
Grezia	1,0	1,2	1,1	2,6 (b)	1,8	1,9	1,9
Hungaria	2,9	2,7	2,9	4,5 (b)	4,0	3,9	3,8
Irlanda	:	:	5,5	5,9 (b)	6,1	7,4	7,5
Italia	4,8 (b)	4,5	4,4	4,5	6,3 (b)	5,8	6,1
Letonia	:	:	7,3	7,8	8,4	7,9	6,9 (p)
Lituania	2,8	3,5	3,0 (b)	3,8	5,9 (b)	6,0	4,9 (p)
Luxenburgo	4,8	5,3	7,7	6,5 (b)	9,8	8,5	8,2
Malta	4,5	4,6	4,4	4,2	4,3 (b)	5,3	5,5
Herbehereak	15,5	15,9	15,8	16,4 (b)	16,4	15,9	15,6
Polonia	:	4,3	4,2	4,4	5,0 (b)	4,9	4,7
Portugal	3,4	3,3	2,9	3,2	4,3 (b)	4,1	3,8 (p)
Erresuma Batua	20,5 (b)	20,9	21,3	26,8 (b)	29,4	27,5	26,6 (p)
Txekiar Errepublika	:	:	5,6	5,1 (b)	5,8	5,6	5,6
Errumania	0,9	1,0	1,0	1,1	1,4 (p)	1,6	1,3
Suedia	21,6	17,5 (b)	18,4	31,8 (b)	32,1	32,1	:

(i) Ez dago eskuragarri

(e) Balio estimatua

(b) Seriearen haustura

(i) Ikus oharrak: http://europa.eu.int/estatref/info/sdds/en/strind/innore_ir09.htm

(p) Behin behineko datua.

Iturria: EUROSTAT



C6


Prestakuntza iraunkorreko partaidetza

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



C6.4 grafikoa:

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko populazioaren ehunekoa Europar Batasuneko herrialdeetan.



Oharra: Handienetik txikienera ordenaturik, "2006. urtea" irizpidearen arabera.

Iturria: EUROSTAT

**C6.5 taula:**

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko populazioaren ehunekoa Europar Batasuneko herrialdeetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2006. urtea.

	Sexu biak	Emakumeak	Gizonak	Aldea
EB (27 herrialde)	9,6	10,4	8,8	1,6
EB (25 herrialde)	10,1	11,0	9,2	1,8
EB (15 herrialde)	11,1	12,1	10,2	1,9
Alemania	7,5	7,3	7,8	-0,5
Austria	13,1	14,0	12,2	1,8
Belgika	7,5 (p)	7,6 (p)	7,4 (p)	0,2
Bulgaria	1,3	1,3	1,3	0,0
Zipre	7,1	7,8	6,5	1,3
Danimarka	29,2	33,8	24,6	9,2
Eslovakia	4,3	4,6	4,0	0,6
Eslovenia	15,0	16,3	13,8	2,5
Espainia	10,4	11,5	9,3	2,2
Estonia	6,5	8,6	4,2 (u)	4,4
Euskadi	12,4	13,7	11,2	2,5
Finlandia	23,1	27,0	19,3	7,7
Frantzia	7,5	7,8	7,2	0,6
Grezia	1,9	1,8	2,0	-0,2
Hungaria	3,8	4,4	3,1	1,3
Irlanda	7,5	8,9	6,1	2,8
Italia	6,1	6,5	5,7	0,8
Letonia	6,9 (p)	9,3 (p)	4,1 (p)	5,2
Lituania	4,9 (p)	6,6 (p)	2,9 (u)	3,7
Luxenburgo	8,2	8,7	7,6	1,1
Malta	5,5	5,6	5,5	0,1
Herbehereak	15,6	15,9	15,3	0,6
Polonia	4,7	5,1	4,3	0,8
Portugal	3,8 (p)	4,0 (p)	3,7 (p)	0,3
Erresuma Batua	26,6 (p)	31,2 (p)	22,0 (p)	9,2
Txekiar Errepublika	5,6	5,9	5,4	0,5
Errumania	1,3	1,3	1,3	0,0

(p) Behin behineko balioa


(u) Konparatze arazoak dituen datua

Iturria: EUROSTAT



C6.5 grafikoa:

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko populazioaren ehunekoa Europar Batasuneko herrialdeetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2006. urtea.



Oharra: Handienetik txikienera ordenaturik "Sexu biak" irizpidearen arabera.


Iturria: EUROSTAT



ISEI - IVEI

Rs5. ESKOLA-UZTE GOIZTIARRA





ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Edizioa: Ekaina 2007

© ISEI•IVEI-k argitaratua

ISEI•IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3º - 48015 Bilbao
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

KOORDINATZAILEA

Paz Martínez
Inmaculada Tambo

ASESORAMIENTO TÉCNICO

Alejandro Campo

DISEINUA

Ikur, S.A.



ESKOLA-UZTEAREN EHUNEKOA IKASKETA MAILARIK ALTUENA DBHKO TITULUA (CINE 2) DUEN ETA ONDORENGO IRAKASKUNTZARIK EDO PRESTAKUNTZARIK* JASOTZEN EZ DUEN 18-24 URTE BITARTEKO POPULAZIOAREN ARTEAN

Europar Batasunaren helburua 2010. urterako: Eskola-uzte goiztiarra %10 baino gutxiago izatea.

Eskola-uztearen tasa betidanik izan da oinarritzko kezka bat europar hezkuntza politiketan. Datu hau adierazle estrategiko bezala erabili izan da enplegu politiken koordinaziorako Luxenburgoko prozesuan eta baita Lisboako prozesuaren jarraipenerako egitura-adierazleen zerrendan ere.

Lisboan 2000ko martxoan izandako Europar Kontseiluaren ondorioen artean eskola-uzteari dagokion helburu espezifiko bat finkatu zen: ikasketa mailarik altuena DBH (CINE 2) duten eta ikasteari uzten dioten 18-24 urteko pertsonen kopurua erdira murriztea. Azken finean, adin tarte honetako gazteek, bai irakaskuntza arautuaren bidez (derrigorrezkoaren ondokoa) bai hezkuntza sistematik aparteko beste edozein motako prestakuntzaren bidez, beren prestakuntza jarrai dezaten sustatzea da eta honela populazioaren parte bat ezagutzaren gizartetik kanpo gera dadin ekiditea. Hala ere, adierazle honek ez du neurtzen derrigorrezko irakaskuntzako eskola-uztea ezta eskola-porrota ere, azken hau derrigorrezko hezkuntza gainditzen ez duten ikasleek ehuneko bezala harturik.

Adierazle honen bilakaerak europar herrialdeetan beheranzko joera duen arren, kontutan hartu behar da finkatutako helburua benetan handizalea dela, estatu kide batzuk 2010ean lortu nahi den %10 horretatik oso urrun baitaude. 2006an sei herrialdek bakarrik bete dute finkatutako helburua. Oro har, gora-behera handiak izaten direla ikusten da eta, behin %10 horren inguruko ehuneko jakin batzuetara heldu ondoren, hobetzea oso zaila dela, Euskadiren kasuan bezala.

2006. urtean EB osatzen zuten 15 herrialdeetako batez bestekoa %17 zen. 12 estatu kide berrien integrazioarekin eskola-uztearen ehunekoa %15era jaitsi da, herrialde hauetako eskola-uztearen tasa EBeko gainerrakotako tasa baino baxuagoa baita.

EAEri dagokionez, bi aldi ezberdin ikusten dira: 1992-1999 aldian adierazle honen bilakaera positiboa ikusten da, eskola-uztearen tasa %25,4 izatetik %13,9 izatera pasa zelarik, azken hiru urteetan gorabehera txikiak izanik. 2000-2006 aldian ehuneko honen inguruko gorabehera txikiak eta iraunkorrak izan dira. Eskola-uztearen tasan behin 10 puntuz jaistea lortu ondoren, gaur egungo baldintzetan hobetzea zaila dela ikusten da.

(* Prestakuntza bezala edozein motako (arautu zein arautu gabeko) ikaskuntzarekin erlazionatutako edozein jardura hartzen da.



Sexuaren aldagaiak ere datu argigarriak eskaintzen ditu. 2006an, sexuen arteko ezberdintasunik ez dagoen Europar Batasuneko bost herrialdetan izan ezik, gainontzeko hogeitabi herrialdeetan eskola-uzte goiztiarraren tasa handiagoa da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino. Portugal, Zipre, Espainia eta Euskadiren kasuetan ezberdintasun hau 10 puntukoa baino handiagoa da.

Euskadin, emakumezkoen eskola-uztearen tasa %8,6 da, 2010. urterako aurreikusitakoa baino baxuagoa. Gizonezkoak, berriz, urrunago daude, beren eskola-uztearen tasa %20,4 baita.


Autonomia Erkidegoei gagozkielarik, 2006. urte honetan, Euskadi eta Nafarroa dira eskola-uztearen tasarik baxuena duten erkidegoak, biak Estatuko batez bestekoaren (%29,9) azpitik.



Rs5.1 taula eta grafikoa:

Euskal Autonomia Erkidegoan ikasketak garaia baino lehen utzi dituen 18-24 urte bitarteko populazioaren ehunekoaren bilakaera sexuaren arabera.

Urtea	Guztira	Emakumekoak	Gizonak
1992	25,4	22,6	28,2
1993	23,1	17,2	29,0
1994	18,8	14,0	23,4
1995	18,2	13,6	22,7
1996	15,4	11,9	18,7
1997	16,6	13,6	19,5
1998	15,6	11,5	19,5
1999	13,9	10,3	17,4
2000	14,5	9,3	19,6
2001	15,5	9,7	21,1
2002	13,3	8,3	18,1
2003	14,4	11,2	17,5
2004	12,7	8,3	16,8
2005	13,9	10,0	17,4
2006	14,5	8,6	20,4



Iturria: EUSTAT




Rs5.2 taula eta grafikoa:

Eskola-uzte goiztiarraren ehunekoa Autonomia Erkidegoetan 2006. urtean sexuaren arabera.

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
GUZTIRA	29,9	35,8	23,8
Andaluza	36,9	43,5	30,2
Aragoi	28,7	36,8	20,2
Asturias (Printzerria)	22,3 ^b	30,5	14,0
Balear Uharteak	34,9	44,7	24,3
Kanariak	34,8	40,9	28,8
Kantabria	24,0	30,4	16,5
Gaztela-Leon	24,4	30,6	17,8
Gaztela-Mantxa	38,0	46,6	29,0
Katalunia	27,0	32,3	21,7
Ceuta	54,8 ^a	59,5 ^b	51,2 ^a
Valentziako E.	30,4	37,1	23,7
Euskadi	14,5^b	20,4	8,6
Extremadura	35,7	45,9	24,9
Galizia	25,8	34,6	16,7
Madril (Erkidegoa)	25,3	27,6	23,0
Melilla	38,0	37,1 ^b	39,1 ^a
Murtzia	39,1 ^a	41,9	35,8
Nafarroa (F. Erkidegoa)	13,0 ^b	13,2	12,0 ^b
Errioxa	26,4	28,8	23,9 ^b

(a) Balio estimatua

(b) Seriearen haustura



Oharra: Txikienetik handienara ordenaturik "Sexu biak" irizpidearen arabera.

Iturria: EUROSTAT



Rs5.3 taula:

Eskola-uzte goiztiarraren ehunekoaren bilakaera Europar Batasunean.

URTEAK	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Europar Batasuna (27)	17,6^(e)	17,3^(e)	17	16,6^(b)	16	16	15
Europar Batasuna (25)	17,3^(e)	17,0^(e)	16,6	16,2^(b)	15,6	15,2	15,1
Europar Batasuna (15)	19,5^(e)	19,0^(e)	18,7	18,3^(b)	17,7	17,3	17,0
Alemania	14,9	12,5	12,6	12,8 ⁽ⁱ⁾	12,1	13,8	13,8
Austria	10,2	10,2	9,5	9,3 ^(b)	8,7 ⁽ⁱ⁾	9,0	9,6
Belgika	12,5	13,6	12,4	12,8	11,9 ^(b)	13,0	12,6
Bulgaria	:	20,3	21	22,4	21,4	20	18
Zipre	18,5	17,9	15,9	17,4 ^(b)	20,6	18,1	16,0
Danimarka	11,6	9,0	8,6	10,3 ^(b)	8,5	8,5	10,9
Eslovenia	:	7,5	4,8 ^(u)	4,3 ^(u)	4,2 ^(u)	4,3 ^(u)	5,2 ^(u)
Espainia	29,1	29,2	29,9	31,3	31,7	30,8 ^(b)	29,9
Estonia	14,2	14,1	12,6	11,8	13,7	14,0	13,2
Euskadi	14,5	15,5	13,3	14,4	12,7	13,9	14,5
Finlandia	8,9 ^(b)	10,3	9,9	8,3 ^(b)	8,7	9,3	10,8 ^(p)
Frantzia	13,3	13,5	13,4	13,7 ^(b)	14,2	12,6	13,1
Grezia	18,2	17,3	16,7	15,5 ^(b)	14,9	13,3	15,9
Hungaria	13,8	12,9	12,2	11,8 ^(b)	12,6	12,3	12,4
Irlanda	:	:	14,7	12,3 ^(b)	12,9 ^(p)	12,3 ^(p)	12,3
Italia	25,3	26,4	24,3	23,5	22,3	21,9	20,8
Letonia	:	:	19,5	18,1	15,6	11,9	19,0 ^(p)
Lituania	16,7	13,7	14,3 ^(b)	11,8	9,5 ^(b)	9,2	10,3
Luxenburgo	16,8	18,1	17,0	12,3	12,7	13,3	13,3
Malta	54,2	54,4	53,2	48,2	42,0 ^(b)	41,2	41,6
Herbehereak	15,5	15,3	15,0	14,2 ^(b)	14,0	13,6	12,9
Polonia	:	7,9	7,6	6,3	5,7 ^(b)	5,5	5,6
Portugal	42,6	44,0	45,1	40,4	39,4 ^(b)	38,6	39,2 ^(p)
Erresuma Batua	18,4	17,7	17,8	16,8	14,9 ⁽ⁱ⁾	14,0	13,0
Txekiar Errepublika	:	:	5,5	6,0 ^(b)	6,1	6,4	5,5
Eslovakiar Errepublika	:	:	5,6	4,9 ^(b)	7,1	5,8	6,4
Errumania	22,3	21,3	23,2	23,2	23,6 ^(b)	20,8	19
Suedia	7,7	10,5 ^(b)	10,4	9,0 ^(b)	8,6	11,7 ^(b)	12,0

(.) Ez dago eskuragarri

(b) Seriearen haustura

(e) Balio estimatua

(i) Kontzeptu eta definizio harmonizatuak aplikatzearen ondorioz, ezin da aurreko urtekoekin konparatu

(p) Behin behineko datua


(u) Konparatze arazoak dituen datua

Iturria: EUROSTAT. (LFS-2. hiruhilabetea - Europar Batasuneko Egitura Adierazleak).



Rs5.3 grafikoa:

Eskola-uzte goiztiarra Europar Batasunean 2006. urtean.



Oharra: Eskola-uzte txikienetik handienera ordenaturik.

Iturria: EUROSTAT. (LFS-2. hiruhilabetea - Europar Batasuneko Egitura Adierazleak).

**Tabla Rs5.4:****Eskola-uzte goiztiarra Europar Batasunean 2006. urtean sexuaren arabera.**

	Ambos sexos	Hombres	Mujeres	Diferencia
Europar Batasuna (15)	17,0	19,5	14,5	5,0
Europar Batasuna (25)	15,1	17,4	12,8	4,6
Europar Batasuna (27)	15,4	17,5	13,2	4,3
Alemania	13,8	13,9	13,6	0,3
Austria	9,6	9,3	9,8	-0,5
Belgika	12,6	14,9	10,2	4,7
Bulgaria	18,0	18,2	17,9	0,3
Zipre	16,0	23,5	9,2	14,3
Danimarka	10,9	12,8	9,1	3,7
Eslovenia	5,2	6,9 ^(u)	3,3 ^(u)	3,6
Espainia	29,9	35,8	23,8	12,0
Estonia	13,2	19,6 ^(u)	: (u)	
Euskadi	14,5	20,4	8,6	11,7
Finlandia	10,8	12,6 ^(p)	9,0 ^(p)	3,6
Frantzia	13,1	15,1	11,2	3,9
Grezia	15,9	20,7	11,0	9,7
Hungaria	12,4	14,0	10,7	3,3
Irlanda	12,3	15,6	9,0	6,6
Italia	20,8	24,3	17,3	7,0
Letonia	19,0	21,6 ^(p)	16,1 ^(p)	5,5
Lituania	10,3	13,3 ^(u)	7,0 ^(u)	6,3
Luxenburgo	13,3	17,0	9,6	7,4
Malta	41,6	44,4	38,9	5,5
Herbehereak	12,9	15,1	10,7	4,4
Polonia	5,6	7,2	3,8	3,4
Portugal	39,2	46,4 ^(p)	31,8 ^(p)	14,6
Erresuma Batua	13,0	14,6	11,4	3,2
Txekiar Errepublika	5,5	5,7	5,4	0,3
Eslovakiar Errepublika	6,4	7,3	5,5	1,8
Errumania	19,0	19,1	18,9	0,2
Suedia	12,0	13,3	10,7	6,3

(c) Ez dago eskuragarri

(b) Seriearen haustura

(e) Balio estimatua

(i) Kontzeptu eta definizio harmonizatuak aplikatzearen ondorioz, ezin da aurreko urtekoekin konparatu

(p) Behin behineko datua

(u) Konparatze arazoak dituen datua


Iturria: EUROSTAT. (LFS-2. hiru hilabetea - Europar Batasuneko Egitura Adierazleak).



ISEI - IVEI

**Rs7. ZIENTZIAN, MATEMATIKAN ETA
TEKNOLOGIAN TITULUDUNAK**





ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Edizioa: Ekaina 2007

© ISEI•IVEI-k argitaratua

ISEI•IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3º - 48015 Bilbao
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

KOORDINATZAILEA

Paz Martínez
Inmaculada Tambo

ASESORAMIENTO TÉCNICO

Alejandro Campo

DISEINUA

Ikur, S.A.



AIPATZEN DEN URTEAN ZIENTZIAN, MATEMATIKAN ETA TEKNOLOGIAN HIRUGARREN MAILAKO TITULAZIOA (CINE 5A, 5B ETA 6) LORTU DUEN 20-29 URTE BITARTEKO POPULAZIOAREN TASA (PERTSONAK MILA BIZTANLEKO).

Europar Batasunaren helburua 2010. urterako: Tituludunen tasa orokorra %15 handitzea eta sexuen arteko desoreka murriztea.

Garapen ekonomikoa eta ikerketa zientifikoa sustatzeko asmoz, Matematikan, Zientzian eta Teknologian lizentziatuen tasa handitzea ezinbestekotzat jo du Europar Batasunak.

Europar Batasunak, era berean, ikasketa zientifiko eta teknologikoetan tituludunen artean dagoen sexuaren aldetiko desoreka berdintzea helburutzat finkatu du. Ikasketa hauek aukeratu eta bukatzen dituzten emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino nabarmen txikiagoa da.

2004. urtean, EB osatzen zuten 25 herrialdeetan Zientzietan, Matematikan eta Teknologian tituludunen tasaren batez bestekoa %12,6 zen, 2 herrialde berriak sartzean %12,4ra jaitsi zen arren. Hala ere, herrialde ezberdinen arteko aldea oso handia da, Zipreko %4,2tik Irlandako %23,1erakoa, tartean Alemania (%9), Espainia (%12,5) eta Suedia (%15,9) direlarik.

EAEn 1992-2005 aldian adierazle honen etengabeko bilakaera positiboa ikusten da, Zientzietan, Matematikan, eta Teknologian tituludunen tasa 1992ko %5,9tik 2005eko %27,1era handitu zelarik. Azken kopuru hauek EBko herrialde guztietako altuenak dira, ziur asko Lanbide Heziketa Teknologikoak (CINE 5B) Euskadin duen garrantziaren ondorioz.

Urte hauetan guztietan zehar ikusten da EAEn Matematikan, Zientzietan eta Teknologian tituludunen tasarik altuenak Goi Mailako Lanbide Heziketari dagozkiola, gero hurrenez hurren lizentziaturak, diplomaturak eta doktoretzak datoz.

Sexuaren aldetiko ezberdintasunak ere datu argigarriak eskaintzen ditu. 2005. urtean bertan Zientzietan, Matematikan eta Teknologian tituludunen tasa emakumezkoen artean %15,7 zen eta gizonezkoen artean %37,8, %22,1 baxuagoa. Honek esan nahi du, adierazlea oso onuragarria den arren, sexuen arteko ezberdintasunak emakumezkoen titulazioa arlo zientifiko eta teknologikoan bultzatzea eskatzen duela. Ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan, txikiagoa da sexuaren aldetiko ezberdintasuna.

¹ CINE 5A maila unibertsitateko tituluei dagokie, 5B goi mailako heziketa zikloetako tituluei eta 6 doktoretzakoei.

² EUSTATEko datuak Euskadirako, EUROSTATen irizpide bereberekin taxututakoak.



2003-2004 ikasturtean Zientzietan, Matematikan eta Teknologian tituludunen tasa nabarmen aldatzen da Autonomia Erkidegoen artean (Melillako %1,9tik Asturiasko %18,2ra). Unibertsitate mailako tituludunen tasa Goi Mailako Heziketa Zikloetako tituludunen tasa baino altuagoa da (Euskadiren kasuan izan ezik). Sexuaren aldetiko ezberdintasunari dagokionez, ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan, ezberdintasuna txikiagoa da.

Europar Batasuneko herrialdeetan joera positiboa ikusten da Zientzietan, Matematikan eta Teknologian goi mailako tituludunen tasaren bilakaeran. Sartu berriak diren herrialdeetan tituludunen tasa txikiagoa da, baina sexuaren aldetiko ezberdintasuna ere txikiagoa da.

Matematikan, Zientzietan eta Teknologian tituludunen 2004ko tasari bagagozkio, EBko 27 herrialdeetako tasa (%12,4) munduko herrialde boteretsuenak izan ohi diren herrialde batzuetakoekin (Estatu Batuetako %10,2 eta Japoniako %13,4) konparatzen badugu, EB Estatu Batuak baino 2,2 puntu altuago eta Japonia baino 1 puntu baxuago dagoela ikusten da.




Rs7.1 taula eta grafikoa:

Zientzietan, Matematikan eta Teknologian hirugarren mailako titulazioa (CINE 5A, 5B eta 6) duen 20-29 urte bitarteko populazioaren tasaren (pertsonak mila biztanleko) bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. EAEko datuak.

Ikasturtea	Tituludunen kopuru orokorra	20-29 urte bitarteko populazioa	TASA MILA BIZTANLEKO		
			OROKORRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
1991/92	2.118	358.722	5,9	3,6	8,1
1992/93	2.064	358.762	5,8	3,2	8,2
1993/94	2.185	357.232	6,1	3,3	8,8
1994/95	3.002	356.288	8,4	3,9	12,8
1995/96	3.768	351.728	10,7	5,0	16,2
1996/97	4.453	352.154	12,6	6,4	18,6
1997/98	6.349	350.143	18,1	9,4	26,5
1998/99	5.830	344.980	16,9	9,4	24,0
1999/00	6.871	339.699	20,2	10,9	29,1
2000/01	7.921	333.405	23,8	13,3	33,7
2001/02	7.980	324.688	24,6	13,3	35,3
2002/03	7.940	314.252	25,3	14,8	35,2
2003/04	7.811	298.907	26,1	15,1	36,6
2004/05	7.755	286.600	27,1	15,7	37,8

* 2004/5 ikasturtean populazioaren proiezioak erabili dira; gainerako ikasturteetan populazio eguneratua erabili da.



Iturria: EUSTAT




Rs7.2 taula:

Zientzietan eta Teknologian hirugarren mailako titulazioa (CINE 5A, 5B eta 6) duen 20-29 urte bitarteko populazioaren tasaren (pertsonak mila biztanleko) bilakaera titulazio motaren arabera eta sexuaren arabera.

	Lanbide Heziketa				Diplomaturak				Lizentziaturak				Doktoretzak			
	Sexu biak	Gizonak	Emak.	Aldea	Sexu biak	Gizonak	Emak.	Aldea	Sexu biak	Gizonak	Emak.	Aldea	Sexu biak	Gizonak	Emak.	Aldea
1996-97	3,6	6,4	0,6	5,8	3,1	4,9	1,2	3,7	5,7	6,9	4,4	2,6	0,3	0,4	0,2	0,2
1997-98	8,6	13,9	3,1	10,8	3,1	4,9	1,2	3,7	6,3	7,6	5,0	2,6	0,2	0,2	0,1	0,0
1998-99	6,4	10,3	2,3	8,0	4,0	5,9	1,9	4,0	6,2	7,5	4,9	2,6	0,3	0,3	0,3	0,0
1999-00	7,7	12,3	2,9	9,4	5,3	8,1	2,4	5,8	6,9	8,3	5,5	2,8	0,3	0,4	0,2	0,2
2000-01	11,2	17,5	4,7	12,8	5,0	7,4	2,6	4,8	7,2	8,5	5,8	2,7	0,3	0,4	0,3	0,1
2001-02	12,5	19,2	5,3	13,9	4,9	7,2	2,5	4,7	6,9	8,4	5,3	3,1	0,3	0,4	0,2	0,2
2002-03	13,5	20,4	6,2	14,2	4,6	6,6	2,6	4,0	6,8	8,0	5,6	2,3	0,3	0,3	0,3	0,0
2003-04	13,4	20,0	6,3	13,7	5,2	7,5	2,8	4,7	7,1	8,5	5,6	2,8	0,2	0,2	0,1	0,0
2004-05	13,6	20,6	6,2	14,4	5,6	8,0	3,1	4,8	7,5	8,9	6,1	2,8	0,3	0,3	0,3	0,0

Rs7.2.1 grafikoa:

Zientzietan eta Teknologian hirugarren mailako titulazioa (CINE 5A, 5B eta 6) duen 20-29 urte bitarteko populazioaren tasaren (pertsonak mila biztanleko) bilakaera titulazio motaren arabera.




Iturria: EUSTAT




Rs7.2.2 grafikoak:

Zientzian eta Teknologian hirugarren mailako titulazioa (CINE 5A, 5B eta 6) duen 20-29 urte bitarteko populazioaren tasa (pertsonak mila biztanleko) ikasketa mailaren arabera eta sexuaren arabera. 2003-04 ikasturtea.


Lanbide Heziketa



Diplomatura



Lizentziatura




Iturria: EUSTAT



Rs7.3 taula eta grafikoak:

Zientzietan eta Teknologian goi mailako titulazioa duen 20-29 urte bitarteko populazioaren tasaren (pertsonak mila biztanleko) bilakaera titulazio motaren arabera eta sexuaren arabera. 2003-04 ikasturtea.

	Goi Mailako Hezkuntza			Goi Mailako Lanbide Heziketa			Unibertsitateko Hezkuntza		
	Guztira	Gizonak	Emak.	Guztira	Gizonak	Emak.	Guztira	Gizonak	Emak.
GUZTIRA	12,5	17,1	7,7	4,7	7,3	1,9	7,8	9,7	5,7
Andaluzia	9,2	12,7	5,4	3,4	5,3	1,4	5,8	7,5	4,1
Aragoi	15,5	21,1	9,6	5,7	8,8	2,4	9,8	12,3	7,2
Asturias	18,2	25,1	11,1	8,5	12,9	3,9	9,7	12,1	7,2
Balear Uharreak	3,5	5,0	1,9	1,5	2,7	0,3	2,0	2,3	1,6
Valentziako E.	11,1	15,0	7,0	3,5	5,8	1,1	7,6	9,2	5,9
Kanariak	6,8	9,4	4,0	2,6	4,3	0,8	4,2	5,1	3,2
Kantabria	17,5	23,1	11,5	7,2	10,1	4,0	10,3	13,0	7,5
Gaztela-Leon	17,6	23,1	11,7	6,4	9,6	3,0	11,2	13,5	8,8
Gaztela-Mantxa	6,7	10,1	3,0	3,2	5,0	1,2	3,5	5,1	1,8
Katalunia	12,6	17,4	7,5	4,4	6,9	1,6	8,2	10,4	5,8
Ceuta	2,3	3,6	0,7	2,3	3,6	0,7	X	X	X
Euskadi*	26,1	36,6	15,1	13,5	20,3	6,4	12,6	16,3	8,7
Extremadura	9,1	11,6	6,4	3,0	4,8	1,1	6,1	6,9	5,3
Galizia	13,8	17,7	9,7	6,7	10,0	3,3	7,1	7,7	6,4
Errioxa	10,4	14,7	5,7	5,0	7,6	2,2	5,4	7,1	3,5
Madril	15,4	21,0	9,7	4,6	7,3	1,9	10,8	13,7	7,8
Melilla	1,9	3,2	0,4	1,9	3,2	0,4	X	X	X
Murtzia	8,2	11,5	4,6	3,5	5,5	1,4	4,7	6,0	3,2
Nafarroa	15,5	21,2	9,4	6,8	11,2	2,0	8,7	9,9	7,4







Rs7.3 taula eta grafikoak (jarr.):

Zientzietan eta Teknologian goi mailako titulazioa duen 20-29 urte bitarteko populazioaren tasa-
ren (pertsonak mila biztanleko) bilakaera titulazio motaren arabera eta sexuaren arabera.

Goi Mailako Heziketa Zikloak



Unibertsitateko Hezkuntza



Iturria: MECKo estatistika bulegoa.

* Euskadirako EUSTATEko datuak.

**Rs7.4 taula:**

**Zientzietan eta Teknologian goi mailako titulazioa duen 20-29 urte bitarteko populazioaren tasa-
ren (pertsonak mila biztanleko) bilakaera Europar Batasuneko herrialdeetan.**

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004
EB (27 herrialde)	:	9,5 (s)	10,0 (s)	10,6 (s)	11,1 (s)	12,1 (s)	12,4 (s)
EB (25 herrialde)	:	9,8	10,4 (s)	11,0 (s)	11,4 (s)	12,3 (s)	12,6 (s)
Alemania	8,8	8,6	8,2	8,0	8,1	8,4	9,0
Austria	7,9 (i)	6,9 (i)	7,2 (i)	7,3	7,9	8,2	8,7
Belgika	:	:	9,7 (i)	10,1 (i)	10,5 (i)	11,0 (i)	11,2 (i)
Bulgaria	5,5	6,5	6,6	7,9	11,7	8,3	8,5
Zipre	:	3,8 (i)	3,4 (i)	3,7 (i)	3,8 (i)	3,6 (i)	4,2 (i)
Danimarka	8,1	8,2	11,7	12,2	11,7	12,5	13,8
Eslovakia	4,3 (i)	5,1	5,3	7,5	7,8	8,3	9,2
Eslovenia	8,0	8,4	8,9	8,2	9,5	8,7	9,3
Espainia	8,0	9,5	9,9	11,2	11,9	12,6	12,5
Estonia	3,3	6,3	7,0 (i)	7,3 (i)	6,6 (i)	8,8	8,9
Euskadi	18,1	16,9	20,2	23,8	24,6	25,3	26,1
Finlandia	15,9	17,8	16,0	17,2	17,4	17,4	:
Frantzia	17,9	18,4	19,6	19,5	:	21,3	:
Grezia	:	:	0	:	:	:	8,0
Herbehereak	6,0	5,8	5,8	6,1	6,6	7,3	7,9
Hungaria	5,0	5,1	4,5	3,7	4,8	4,8	5,1 (i)
Irlanda	22,9	23,8	24,2	22,9	20,5	24,2	23,1
Italia	5,1	5,5	5,7	6,1	7,4	9,0	10,1
Letonia	6,1	6,4	7,4	7,6	8,1	8,6	9,4
Lituania	9,3	11,7	13,5	14,8	14,6	16,3	17,5
Luxenburgo	1,4 (i)	:	1,8 (i)	:	:	:	:
Malta	:	3,9	3,4	2,7	3,1	3,6	:
Polonia	4,9	5,7	6,6 (i)	7,6	8,3	9,0	9,4
Portugal	5,2	6,1	6,3	6,6	7,4	8,2	11,0 (i)
Erresuma Batua	15,5	16,0	18,5	20,0 (i)	20,3	21,0	18,1
Txekiar Errepublika	4,6	5,0	5,5	5,6	6,0	6,4	7,4
Errumania	4,5 (i)	4,4 (i)	4,9 (i)	5,3 (i)	5,8 (i)	9,4	9,8
Suedia	7,9	9,7	11,6	12,4	13,3	13,9	15,9 (i)

(:) Ez dago eskuragarri

(s) EUROSTATen estimazioa


(i) Ikus argibide-testua: http://europa.eu.int/estratref/info/sdds/en/strind/innore_ir04.htm

Iturria: EUROSTAT.



Rs7.4.1 grafikoa:

Zientzietan eta Teknologian goi mailako titulazioa duen 20-29 urte bitarteko populazioaren tasa (pertsonak mila biztanleko) Europar Batasuneko herrialdeetan. 2004. urtea.



Iturria: EUROSTAT

**Rs7.5 taula:**

Zientzietan eta Teknologian goi mailako titulazioa duen 20-29 urte bitarteko populazioaren tasa (pertsonak mila biztanleko) Europar Batasuneko herrialdeetan sexuaren arabera. 2004. urtea.

	Sexu biak	Gizonak	Emakumeak	Aldea
EB (27 herrialde)	12.4 (s)	16.8 (s)	7.9 (s)	8,9
EB (25 herrialde)	12.6 (s)	17.2 (s)	7.9 (s)	9,3
Alemania	9.0	13.4	4.3	9,1
Austria	8.7	13.4	4.0	9,4
Belgika	11.2 (i)	16.6 (i)	5.7 (i)	10,9
Bulgaria	8.5	9.6	7.2	2,4
Zipre	4.2 (i)	5.2 (i)	3.2 (i)	2,0
Danimarka	13.8	18.6	9.0	9,6
Eslovakia	9.2	11.7	6.6	5,1
Eslovenia	9.3	13.6	4.8	8,8
Espainia	12.5	16.9	7.7	9,2
Estonia	8.9	10.5	7.4	3,1
Euskadi	26,1	36,6	15,1	21,5
Grezia	8.0	9.2	6.8	2,4
Herbehereak	7.9	12.6	3.1	9,5
Hungaria	5.1 (i)	7.1 (i)	2.9 (i)	4,2
Irlanda	23.1	31.6	14.5	17,1
Italia	10.1	12.6	7.6	5,0
Letonia	9.4	12.5	6.3	6,2
Lituania	17.5	22.3	12.6	9,7
Polonia	9.4	12.4	6.4	6,0
Portugal	11.0 (i)	12.8 (i)	9.1 (i)	3,7
Erresuma Batua	18.1	24.8	11.3	13,5
Txekiar Errepublika	7.4	10.2	4.4	5,8
Errumania	9.8	11.8	7.7	4,1
Suedia	15.9 (i)	20.6 (i)	11.0 (i)	9,6

(:) Ez dago eskuragarri

(s) EUROSTATen estimazioa


(i) Ikus argibide-testua: http://europa.eu.int/estratref/info/sdds/en/strind/innore_ir04.htm

Iturria: EUROSTAT



Rs7.5 grafikoa:

Zientzietan eta Teknologian goi mailako titulazioa duen 20-29 urte bitarteko populazioaren tasa (pertsonak mila biztanleko) Europar Batasuneko herrialdeetan sexuaren arabera. 2004. urtea.




Iturria: EUROSTAT



ISEI - IVEI

**Rs8. DERRIGORREZKOAREN ONDOKO
BIGARREN HEZKUNTZA BUKATZEA**





ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Edizioa: Ekaina 2007

© ISEI•IVEI-k argitaratua

ISEI•IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3º - 48015 Bilbao
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

KOORDINATZAILEA

Paz Martínez
Inmaculada Tambo

ASESORAMIENTO TÉCNICO

Alejandro Campo

DISEINUA

Ikur, S.A.



GUTXIENEZ DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAREN ONDOKO IKASKETAK (CINE 3A, 3B ETA 3C) BUKATU DITUEN 20-24 URTE BITARTEKO POPULAZIOAREN EHUNEKOA.

Europar batasunaren helburua 2010. urterako: 22 urteko pertsonen artean gutxienez %85ek derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko ikasketak bukatuta izatea.

Oso garrantzitsua da populazio helduaren ehuneko handi batek derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko titulazioa lortzea, populazioaren ikasketa maila oro har igotzeari begira eta bereziki langileena.

Hezkuntza maila honek eskaintzen dituen prestakuntza eta gaitasuna, goi mailako hezkuntzarako sarbiderako propedeutikoa izateaz gain, berez bukaerako prestakuntza bezala har daitezke, gazteen integrazio ego-kirako behar diren adimen eta giza heldutasuna eta gaitze teknikoak eskaintzen baititu, bai goi mailako hezkuntzan baita lan munduan ere.

Ezagutzan oinarritutako gizartean egoki parte hartzeko behar beharrezkoa da derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzak ematen duen oinarria edukitzea.

Goi mailako bigarren hezkuntzako ikasketak bukatze-tasa etengabe handitu da EBko herrialde gehienetan. Europar Batasunean, 25-64 urte bitarteko populazioaren artean, batez bestekoa 90eko hamarkadaren hasierako %50etik 2000. urteko %66ra handitu da.

EAEan, 1992-1999 aldian, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko titulazioa duen 25-64 urte bitarteko populazioaren ehunekoak etengabeko goranzko bilakaera izan du. 2000-2006 aldian, berriz, inflexio puntuak izan dira eta oro har behin % 81 ingurura heltzen denean, gaitziteza zaila izaten dela ikusten da.

EBko 27 herrialdeetako batez bestekoa 2006. urtean %77,8 izan da. Herrialdeen erdia baino gehiago % 80ren gainetik daude, hots, helburutik oso gertu. Hala ere, bilakaeraren datuak aztertzerakoan, gehienak positiboak izan arren, bilakaeraren erritmoa motelegia dela ikusten da eta honela, finkatutako helburua neurri berriak hartu gabe betetzea oso zaila izango dela pentsa daiteke.

Autonomia Erkidegoei dagokienez, kasua larriagoa da, 2000-2006 aldian izandako bilakaera negatiboa izan baita, oro har eta Erkidego gehienetan, hirutan izan ezik. Gainera, Autonomia Erkidegoetako batez bestekoa, %61,6, helburutik urrun samar dago oraindik.



Adierazle honetan ere sexuaren aldetiko ezberdintasunak nabaritzen dira, ezberdintasun hauek urteetan zehar mantendu direlarik.

Bai Europar Batasuneko herrialdeetan, bai Autonomia Erkidegoetan eta baita Euskadin ere, emakumezkoek beti lortzen dute gizonetzkoek baino ehuneko handiagoa goi mailako bigarren hezkuntzako titulazioan. Salbuespen bakarra Nafarroako Foru Erkidegoa da, bertan Goi Mailako Bigarren Hezkuntzako tituludunen artean adin tarte horretako gizonetzko gehiago baitago emakumezkoak baino.




Rs8.1 taula eta grafikoa:

Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko populazioaren ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. EAEko datuak.

URTEA*	Sexu biak	Emakumeak	Gizonak	Aldea
1992	69,3	72,6	66,0	6,6
1993	68,8	75,4	62,2	13,2
1994	74,9	78,9	70,9	8,0
1995	76,0	80,2	71,7	8,5
1996	79,0	82,0	76,1	5,9
1997	77,8	80,5	75,2	5,3
1998	78,6	83,8	73,7	10,1
1999	83,2	88,3	78,2	10,1
2000	81,5	87,6	75,7	11,9
2001	81,4	86,5	76,4	10,1
2002	80,9	83,4	78,6	4,8
2003	78,3	83,7	73,2	10,5
2004	81,5	85,5	77,7	7,8
2005	81,0	86,0	76,3	9,7
2006	81,2	87,3	75,3	12,0

* 1992-1999 aldiko datuak 2. hiru hilabetekoak dira. 2000-2006 aldiko datuak urtekoak dira eta 2006. urtean gaurkotu/birkalkulatu dira.



Iturria: EUROSTAT

**Rs8.2 taula:**

Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko populazioaren ehunekoaren bilakaera. Autonomia Erkidegoetako datuak.


	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
GUZTIRA	66,0	65,0	63,7	62,2	61,2	61,8	61,6
Andaluzia	58,4	58,6	56,4	54,2	52,8	53,1	52,3
Aragoi	75,0	75,5	68,0	71,3	70,1	70,8	67,9
Asturias (Printzerria)	71,6	73,8	72,4	64,6	66,9	72,2	67,0
Balear Uharteak	51,1	50,7	54,2	52,2	51,1	51,9	51,0
Kanariak	55,8	54,5	59,3	59,1	58,4	59,3	54,4
Kantabria	70,9	69,8	67,1	65,3	67,0	71,8	69,6
Gaztela-Leon	70,3	69,7	70,0	67,6	70,2	66,6	67,1
Gaztela-Mantxa	59,0	57,7	55,8	55,5	55,6	55,0	54,2
Katalunia	67,8	65,4	65,0	60,9	59,4	61,2	65,7
Valentziako E.	62,3	58,4	58,1	58,4	58,6	61,0	61,8
Euskadi	81,5	81,4	80,9	78,3	81,5	81,0	81,2
Extremadura	51,8	55,5	57,3	55,7	51,9	53,9	54,6
Galizia	65,0	66,6	66,8	69,2	68,8	69,2	67,5
Madrilgo E.	77,9	75,7	72,0	72,2	68,6	67,9	66,4
Murtzia	57,2	58,4	56,0	52,9	51,7	53,0	51,9
Nafarroa	82,3	79,8	75,6	75,0	73,7	77,6	82,9
Errioxa	70,7	71,9	69,7	63,2	59,8	67,8	64,8

Iturria: EUROSTAT



Rs8.2 grafikoa:

Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko populazioaren ehunekoa. Autonomia Erkidegoetako datuak.



Oharra: Handienetik txikienera ordenaturik, "2006. urtea" irizpidearen arabera.


Iturria: EUROSTAT



Rs8.3 taula eta grafikoa:

Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko populazioaren ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. Autonomia Erkidegoetako datuak. 2006. urtea.

	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Aldea
GUZTIRA	61,6	69,0	54,6	14,4
Andaluzia	52,3	59,5	45,4	14,1
Aragoi	67,9	76,5	59,8	16,7
Asturias (Printzerria)	67,0	75,1	59,2	15,9
Balear Uharteak	51,0	60,6	41,7	18,8
Kanariak	54,4	61,1	47,9	13,1
Kantabria	69,6	78,1	61,4	16,7
Gaztela-Leon	67,1	73,5	61,1	12,5
Gaztela-Mantxa	54,2	65,1	43,9	21,2
Katalunia	65,7	71,8	59,8	12,0
Valentziako E.	61,8	70,4	53,5	16,9
Euskadi	81,2	87,3	75,3	12,0
Extremadura	54,6	64,1	45,7	18,4
Galizia	67,5	79,8	55,5	24,3
Madrilgo E.	66,4	71,8	61,2	10,6
Murtzia	51,9	59,0	45,4	13,6
Nafarroa	82,9	81,4	84,2	-2,8
Errioxa	64,8	70,9	59,1	11,8



Oharra: Handienetik txikienera ordenaturik, "Sexu biak" irizpidearen arabera.

Iturria: EUROSTAT

Rs8.4 taula:

Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko populazioaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko 27 herrialdeetan.

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
EB (27 herrialde)	76,6	76,6	76,7	76,8	77,1	77,4	77,8
EB (25 herrialde)	76,6	76,5	76,7	76,9	77,2	77,5	77,7
EB (15 herrialde)	73,7	73,6	73,7	73,9	74,3	74,6	74,8
Alemania	74,7	73,6	73,3	72,5	72,8	71,5 (b)	71,6
Austria	85,1 (b)	85,1	85,3	84,2	85,8 (i)	85,9	85,8
Belgika	81,7 (b)	81,7	81,6	81,2	81,8	81,8	82,4
Bulgaria	75,2	78,1 (b)	77,4	76,3	76,1	76,5	80,5 (p)
Zipre	79,0	80,5	83,5	79,5	77,6	80,4	83,7 (p)
Danimarka	72,0	78,4 (i)	78,6	76,2 (b)	76,2	77,1	77,4
Eslovakia	94,8	94,4	94,5	94,1	91,7	91,8	91,5
Eslovenia	88,0 (b)	88,2	90,7	90,8	90,5	90,5	89,4
Espainia	66,0	65,0	63,7	62,2	61,2	61,8	61,6
Estonia	79,0 (b)	79,8	81,4	81,5	80,3	82,6	82,0
Euskadi	81,5	81,4	80,9	78,3	81,5	81,0	81,2
Finlandia	87,7 (b)	86,1	85,8	85,3	84,5	83,4	84,7 (p)
Frantzia	81,6	81,8	81,7	80,4 (b)	81,4	82,6	82,1
Grezia	79,2	80,2	81,1	81,7	83,0	84,1	81,0 (p)
Hungaria	83,5	84,7	85,9	84,7 (b)	83,5	83,4	82,9
Irlanda	82,6	83,9	84,0	85,1 (p)	85,3 (p)	85,8 (p)	85,4
Italia	69,4 (b)	67,9	69,6	71,0	73,4	73,6	75,5 (p)
Letonia	76,5	71,7 (i)	77,1 (b)	75,4	79,5	79,9	81,0
Lituania	78,9 (i)	80,5	81,3 (b)	84,2	85,0	87,8	88,2
Luxenburgo	77,5	68,0	69,8	72,7 (b)	72,5	71,1	69,3
Malta	40,9	40,1	39,0	45,1 (b)	51,0	53,7	50,4 (p)
Herbehereak	71,9	72,7	73,1	75,0	75,0	75,6	74,7
Polonia	88,8 (b)	89,7	89,2	90,3	90,9	91,1	91,7
Portugal	43,2	44,4	44,4	47,9	49,6	49,0	49,6
Erresuma Batua	76,6	76,9	77,1	78,7	77,0	78,2	78,8
Txekiar Errepublika	91,2	90,6	92,2	92,1	91,4	91,2	91,8
Errumania	76,1	77,3	76,3	75,0	75,3	76,0	77,2 (p)
Suedia	85,2	85,5 (b)	86,7	85,8	86,0	87,5	86,5

(b) Seriearen haustura

(i) Ikus oharrak: http://europa.eu.int/estrategi/info/sdds/en/strind/innore_ir09.htm


(p) Behin behineko balioa

Iturria: EUROSTAT



Rs8.4 grafikoa:

Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko populazioaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko 27 herrialdeetan.



Oharra: Handienetik txikienera ordenaturik, "2006. urtea" irizpidearen arabera.

Iturria: EUROSTAT

Rs8.5 taula:

Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko populazioaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko 27 herrialdeetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2006. urtea.

	Sexu biak	Emakumeak	Gizonak	Aldea
EB (27 herrialde)	77,8	80,7	74,8	5,9
EB (25 herrialde)	77,7	80,9	74,7	6,2
EB (15 herrialde)	74,8	78,2	71,5	6,7
Alemania	71,6	73,5	69,8	3,7
Austria	85,8	86,7	84,9	1,8
Belgika	82,4	85,6	79,1	6,5
Bulgaria (p)	80,5	81,1	80,0	1,1
Zipre (p)	83,7	90,7	76,1	14,6
Danimarka	77,4	81,5	73,4	8,1
Eslovakia	91,5	91,7	91,2	0,5
Eslovenia	89,4	91,4	87,7	3,7
Espainia	61,6	69,0	54,6	14,4
Estonia	82,0	89,8	74,1	15,7
Euskadi	81,2	87,3	75,3	12,0
Finlandia (p)	84,7	87,0	82,3	4,7
Frantzia	82,1	84,3	80,0	4,3
Grezia (p)	81,0	86,6	75,5	11,1
Hungaria	82,9	84,7	81,2	3,5
Irlanda	85,4	89,1	81,8	7,3
Italia (p)	75,5	79,4	71,7	7,7
Letonia	81,0	86,2	75,9	10,3
Lituania	88,2	91,2	85,3	5,9
Luxenburgo	69,3	74,5	64,0	10,5
Malta (p)	50,4	52,8	48,1	4,7
Herbehereak	74,7	79,6	69,9	9,7
Polonia	91,7	93,8	89,6	4,2
Portugal	49,6	58,6	40,8	17,8
Erresuma Batua	78,8	80,3	77,3	3,0
Txekiar Errepublika	91,8	92,4	91,1	1,3
Errumania (p)	77,2	77,8	76,6	1,2
Suedia	86,5	88,6	84,5	4,1


(p) Behin behineko balioak

Iturria: EUROSTAT



Rs8.5 grafikoa:

Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko populazioaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko 27 herrialdeetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2006. urtea.



Oharra: Handienetik txikienera ordenaturik "Sexu biak" irizpidearen arabera.

Iturria: EUROSTAT